

7. BALIABIDEAK

Pieza honetan gure aplikazioak ez du askorik izango, alde batetik aplikazioa bat delako (beraz ez du baliabide fisikorik izango jabetxeak izan ezik) eta bestetik, baliabide intelektualen barruan honako hauek izango dituelako:

- Marka bakarra sortuko dugu, Chooseat izena duena (gure enpresaren marka)
- Urte bat zehar patentatuko dugu; hau da, ezin izango dute gure ideia kopian edo antzeko zeozer sortu kontratuan jartzen duelako ezin dela egin
- Egile-eskubideak egongo dira ere, aurrekoarekin zerikusia duena
- Datu - baseetan jabetxeen izenak eta erreserbatu egin duen pertsonaren informazio pribatua agertuko da, ezer gehiagorik

Baliabideekin jarraituz, giza baliabideak oso garrantzitsuak dira gure enpresan nahiz eta langile gutxi izan (bakarrik aplikazioa kontrolatuko dituzten informatikariak). Hauek, gure langileek dituzten abilezia eta ezagutzak dira; hala nola onak direla ordenagailuekin, informatikarekin eta Internetan nola funtzionatzen den jakintzarekin (dakite zelakoa den Internet eta play/App Store, zer arrikuska dituzten hauek eta gure aplikazioa nola erabiltzen eta kontrolatzen den.

Finantza baliabideetan, ohiko ez den gauza bat gertatzen da aplikazio bat izateagatik. Aplikazio bat denez ez dugu dirurik behar, guk sortuko dugulako printzipioz (geroago informatikariek kontrolatuko dute aplikazioaren ekintza guztiak, noski). Hori bai, kapazak ez bagara egiteko gure kabuz, kontratatu behar izango ditugu langileak (online moduan; hau da, haien kabuz lan egin plataforman, bulego batean edo bakoitzak bere etxetik, ordenagailu bat erabilita). Diru hori guk jarriko genuke eta haien soldatak ordainduko genituzke

Azkenik, zehaztuta egon behar da nondik lortuko dugun gure aplikazioaren egunero/asteko/hilaeko ordainketak egiteko behar den dirua. Alde batetik, bezeroek izango duten publizitatetik, eta bestetik jabetxeek emango diguten dirutik; hau da, kontratu baten bidez dirua emango digute beraien jabetxea agertzeko aplikazioan (hau hasieran ez da egongo baina denboraren poderioz agertuko da eta en presek bai edo bai ordaindu behar izango digute, aplikazioa porrota ez bada, bakarrik ondo badao funtzionamendua).